

## AKTA

### UDAL OSOKO EZ-OHIKO BATZARRA

Udal Osoko ez-ohiko batzarra bildu da:

**Eguna:** 2026/04/21

**Ordua:** 18:05-ak

**Tokia:** Udaletxeko areto nagusian

**Bertaratuak:**

**Alkatea:** Joana Mendiboure

**Zinegotziak:**

EHBildu

Agustin Lekuona Irastorza

Olaia Lasa Olaziregi

Garazi Urdampilleta Astibia

Nora Velez del Burgo Zalakain

Jexux Olaziregi Bagües

Edorta Fernandez Etxepeteleku

Oihana Irastorza Gonzalez

Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi

Ekain Susperregi Iburguren

Jon Albisu Mendiburu

Ibintza Irigorri Iriarte

EAJ-PNV

Janire Mitxelena Lekuona (online parte hartzen du)

Iñaki Arbelaiz Mitxelena

**Idazkaria:**

Maria Victoria Joaristi Olariaga

**Ezin etorria adierazi dute:**

Ibon Mitxelena Fernandez

Rafael Bergaretxe Urdampilleta

Maitane Larruskain Agirre

### AZTERGAIA:

1. Oiartzungo Udala “haurreskolak” partzuergoan integratzeko eskaera, udal-haur-eskola zerbitzua haren esku uzteko helburuarekin, Eusko Jaurlaritzari proposamena egitea erabaki zen.

-I-

## OIARTZUNGO UDALA “HAURRESKOLAK” PARTZUERGOAN INTEGRATZEKO ESKAERA, UDAL HAUR-ESKOLA ZERBITZUA HAREN ESKU UZTEKO HELBURUAREKIN

Oiartzungo Udalak 1991n lanketa bat hasi zuen herriko haur hezkuntza zentroak bateratzeko xedez. Garai hartan, udalaren haur-eskolak, beste bi haur-eskola pribatuek, Haurtzaro Ikastolak eta Elizalde herri eskolak parte hartu bazuten ere, azkenean 1999an, udalak, auzoetako haur-eskola pribatuek eta Haurtzaro Ikastolak osatu zuten Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoa. Eta azken 30 urte hauetan herriko haur-eskolaren kudeaketa eraman du, Hezkuntza Sailaren udal haur-eskolak finantzatzeko dirulaguntzaren urtez urteko sostenguarekin.

2024ko azaroan Hezkuntza Sailak ahoz jakinarazi zuen udal haur-eskolei egiten dien ekarpena bertan behera utziko zuela eta udal haur-eskolei Hezkuntza Sailaren Haurreskolak Partzuergoan sartzeko gonbidapena luzatu zien. Ondoren, herri bakoitzak bere ibilbide eta gogoetak egin ahal izateko urtebeteko moratoria eskatu eta onartu zen.

Zerbitzuak udal aurrekontuan duen eragina ikusirik, Oiartzungo Udalak ondorioztatu du Hezkuntza Sailaren babesik gabe ezinezkoa zaiola duela hogeitahamar urte sortutako Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoaren (OUIP) egitura bere horretan eustea.

Oiartzungo Udalak Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin izandako hartu-emanen ondoren, 2026ko otsaileko ohiko osoko bilkuran bi proposamen onartu zituen:

1. 2026-2027 ikasturterako Haurreskolak Partzuergoa Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoan sartzeari, Oiartzungo herriak hogeitahamar urtean garatutako erreferentziazko proiektua garai berrietara eraldatzeko. Euskadiko Tokiko erakundeei buruzko 2/2016 Legean jasota dagoenez, udalak dira herritarrengandik gertuen dauden erakunde publikoak. Zentzu horretan, udalak unean uneko herriko beharrak detektatzeko hurbileko begirada bermatuko lioke proiektuari eta Hezkuntza Sailak proiektua garatzeko ezinbesteko bideragarritasuna. Bakoitzak bere arduratik erantzunez eta aukera paregabe hau baliatuz, Oiartzungo Udalak eskua luzatzen dio Hezkuntza Sailari kalitatezko herri hezkuntza proiektu bat elkarlanean garatzeko.
2. Oiartzungo Udalak adierazten du, erakunde publiko bat izanik, hala dagokion arduratik eta betekizunetik, prestutasun osoa duela OUIPen bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko egon daitezkeen aukera guztiak Hezkuntza Sailarekin lantzeko; bere lehentasuna 1. puntu aditzera emandakoa izanik, 2026-2027 ikasturterako OUIP Haurreskolak Partzuergoan sartzeko aukera baztertu gabe.

2026ko otsailaren 27an aurrez aurreko bilera izan zuen udalak Hezkuntza Saileko eta Haurreskolak Partzuergoko ordezkariekin proposamena aurkezteko. Martxoaren 10ean legebiltzarkideak Urmendin izan ziren proiektua bertatik bertara ezagutzen, udalak gonbidatuta. Horren guztiaren ostean udalak erantzunik jasotzen ez zuenez, martxoaren 25ko plenoan, 10 laneguneko epean erantzuteko eskaera luzatu zion Hezkuntza Sailari eta hark apirilaren 9an jakinarazi zion udalari eskaera bere hurrengo Zuzendaritza Batzordean landuko duela. Zuzendaritza Batzorde hori apirilaren 22an izango dela adierazi du Haurreskolak Partzuergoak eta horregatik deitu da ezohiko osoko bilkura hau bere Zuzendaritza Batzordea baino lehen.

Hori guztia kontuan izanda eta 2026-2027 ikasturterako matrikulazio-epea irekitzeko data iritsi dela jakinda, erakunde publikoari dagokion arduratik eta betekizunetik, Oiartzungo Udalak eskaera egiten du herriko 0-2 etapa Haurreskolak Partzuergoan integratzeko 2026-2027 ikasturtean bertan.



Eskaera berri honek ez du Haurreskola Partzuergo Oartzungo Udal Ikastola Partzuergoan integratzeko lehendik egindako proposamena baliogabetzen, baina bai eskatzen duen lanketa juridiko-administratiboa kontuan hartuta denboran geroraten. Honenbestez, Haurreskolak Partzuergoak proposamen honi buruzko iritzia ere ematea eskatzen da.

Horrenbestez, Udaltzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio:

## AKORDIOA

Lehenengoa.- 2026-2027 ikasturterako Oartzungo Udala Haurreskolak Partzuergoan integratzea eta herriko 0-2 adin tarteko haur-eskola zerbitzuaren kudeaketa Haurreskolak Partzuergoaren esku uztea.

Bigarrena.- Haurreskolak Partzuergoaren eta Oartzungo Udalaren arteko udal haur-eskola integratzeko jarduera protokolo orokorra sinatzeko Alkatea ahalmentzea.

Hirugarrena.- Aurrekoaren ondorioz, eta gaur egun zerbitzua Oartzungo Udal Ikastola Partzuergoaren bidez kudeatzen denez, beharrezko espediente administratiboak hastea, zerbitzu horren kudeaketa Oartzungo Udalera itzularazteko, ondoren Haurreskolak Partzuergoan integratzea ahalbidetzeko.

Alkateak ebazpen proposamena azaldu ondoren, Janire Mitxelena EAJ/PNV-ko zinegotziak hitza hartzen du eta ondorengoa adierazten du:

*“Lehenik eta behin, argi utzi nahi dugu gure jarrera. Gaur ekarriko den erabakia beharrezkoa da eta bide egokian doala uste dugu. Gure taldeak hasieratik defendatu duen moduan, integrazioa zen hasieratik zegoen aukera bakarra.*

*Baina gauza bat ere argi esan behar dago, erabaki hau berandu dator, hau urtarrilean egin behar zen eta ez apirilean presaka. Izan ere, orain prozesu administratibo osoak, subrogazioak, Haur-eskola Partzuergoak egin beharreko ikuskapenak, honek denbora behar du.*

*Eta ez dugu ahaztu behar hiru hilabeteko epea dugula, abuztuko hilabetea baliogabea izanik. Beraz, zalantzan jartzen da irailean integrazioa garaiz iritsiko ote den.*

*Eta gainera gogoratu behar da hau zela bide bakarra doako zerbitzua bermatzeko.*

*Eta hori horrela izanik galdera asko sortzen zaizkigu.*

*Integrazioa ez bada irailean gauzatzen, zer gertatuko da zerbitzuarekin? doakotasuna bermatuko ahal da? Nork emango du zerbitzua? Eta nola? Zein egoeratan egongo dira langileak?*

*Eta integrazioa gauzatzen bada, non eskainiko da zerbitzua? Eta HH2 zerbitzua behar duten familiek ze aukera izango dute? Kontuan hartuta orain arte 0-3 izan dela eta integrazioarekin 0-2ra mugatuko dela?*

*Uste dugu iritsi dela unea galdera hauei erantzun argiak ematen hasteko.*

*Gertatutakoaren kronologia gogoraraztea garrantzitsua da.*

*2025eko martxoan gure taldeak gai honen inguruko lehenengo mozioa ekarri zuen Pleno honetara. Urtarrilaren 30a igaro zen eta erabaki argirik gabe igaro zen.*

*Otsailaren 25ean hemen bertan proposamen bat onartu zen, non udalak proposatzen zuen Haur-eskolen Partzuergo Publikoa Urmendin integratzea.*



*Otsailaren 27an Hezkuntza Sailarekin egindako bileran, egindako proposamena ez zela bideragarria ikusita Hezkuntza bera Urmendin integratzeko aukera planteatu zen.*

*Martxoaren 9an proposamena erregistratu zen eta martxoaren 10ean parlamentariak Hezkuntza Batzordeak izan ziren Urmendin.*

*Martxoko plenoan proposamena onartzen ez bazen, plan alternatiboa zein zen galdetu genuen eta jasotako erantzunak ez ziren argiak izan.*

*Gainera esan zitzaigun hamar eguneko errekerimendua egingo zitzaiola Haurreskola Partzuergoari erantzun bat emateko.*

*Baina gertatu dena are esanguratsuagoa da.*

*Apirilaren 10ean oraindik epe hori bete gabe eta inolako erantzunik jaso gabe, Udalak berak eskatu du Urmendi Haur-eskolaren integrazioa Haurreskola Partzuergo publikoan.*

*Beraz, argi esan behar da integrazioa ez dela kanpotik inposatutako erabakia, udal gobernuak berak eskatu du borondatez. Horren aurrean ez da koherentea orain kanpoko erabakien aurrean ezin egon edo ezintasun diskurtsoa zabaltzea, integrazioa bera udal gobernuak eskatu duenean eta gainera erantzuna jaso aurretik.*

*Bestalde, hasieratik bazekiten planteatutako proposamenak zailtasun handiak zituela aurrera egiteko eta ala era bide horretan luzatu da egoera.*

*Bestalde, uste dugu garrantzitsua dela argitzea Haurreskolen Partzuergoan sartzea, ez dela baztertzen esatea ez dela sartzeko eskaera bera, integrazioa eskatzeko eskaera formala egin eta onartu egin behar da eta alde horretatik poztekoa da udal gobernuak, nahiz eta berandu izan, azkenean integrazioaren aldeko urratsa eman izana. Horren aurrean galderak argiak dira.*

*Proposamena bideragarria ez dela jakinda zergatik luzatu da prozesua? Zergatik eskatu da hamar eguneko epea, gero ez bada erantzun hori itxaron? Proposamena hain ona bazen zergatik ez zen itxaron Haurreskola Partzuergoaren erantzuna? Eta batez ere, zergatik ez da lehenago egin?*

*Egia da gaur hartuko den erabakia zuzena dela baina, egia da ez zegoela beste biderik, integrazioa zen aukera erreala bakarra, gure taldeak hasieratik defendatu duena eta hala ere hilabeteak galdu dira.*

*Denbora honetan zehar zabalduetako informazioa ez da batere argia izan eta eztabaida teknikoan izan behar zena plano emozional batetara eman da. Ez dira datu objektiboak mahai gainean jarri, gure taldea izan da hori egiten saiatu den bakarra.*

*Horrek ondorio garbiak izan ditu, ziurgabetasuna familietan, urduritasuna langileen artean eta zergatik ez esan, tentsioa eta deserosotasuna herrian bertan. Gure ustez gai honen kudeaketan interes politikoa nagusitu da interes orokorraren gainetik, gai honi erabilera politikoa emanik. Horrek ez du lagundu egoera baretzen kontrakoak baizik.*

*Gainera gaur bertan mobilizazioak egin dira, ulertzen dugu eta babesten dugu herritarrek euren iritzia emateko duten eskubidea baina garrantzitsua da gogoraraztea gaur eztabaidatzen ari garen integrazioa udal gobernuak berak eskatu duela.*

*Gai sentikor baten aurrean ardura handiagoz jokatu behar zen, ez da lagundu lasaitasuna ematen, ziurgabetasuna handitu da eta horrek bizikidetzaren bera ere kolokan jarri du.*



*Azkenik, honako hau esan nahi dugu, gaur hartuko den erabakia beharrezkoa da bai, baina herritarrek ez dute azken emaitza bakarrik merezi, bide serio eta arduratsua baizik, horregatik eta guztiagatik guk alde bozkatuko dugu.”*

Alkateak hitza hartzen du.

Janire Mitxelena andereak egindako irakurketa entzun ondoren, udal gobernua eta EAJ/PNV partiduak esandakoaren arteko desadostasun handiak daudela adierazi du eta ez dituela hauek puntuz puntu argituko, baina bai bereziki garrantzitsuenak iruditzen zaizkion puntuak azalduko dituela esan du.

Lehenik, Janire Mitxelena zinegotziak esandakoen tonu orokorra, presa, alarmismoa eta deserosotasuna direla dio eta bai noski deserosotasuna dagoela onartu du Alkateak, baina egoera ez duela udal gobernua sortu, egoera honen gakoa, Oiartzungo Udal Eskola Partzuergoak hogeitahamar urtez jaso dituen dirulaguntzak etetea datza.

Herri honetan inork ez zuen kuestionatzen Urmendiren kudeaketak orain arte bezala jarraitu behar zuen ala ez, eta bestela duela lau hilabete familiei egindako galdetegiaren emaitzak begiratzera gonbidatu ditu alkateak. Horretaz gain, Urmendiren kudeaketari dagokionez gogorarazi du, Udal honek ez duela inoiz familiengandik ez eta EAJ/PNV partiduarengatik kezarik jaso. Datozen aldaketek egungo deserosotasuna ekarri dutela argi dagoela dio baina presak eta alarmismoak alde batera uzteko eskatzen du Alkateak.

Bestalde, aipatutako datuak zuzentasunez esateko dio, apirilaren 9an Udalari Haurreskola Partzuergoaren erantzuna jakinarazi zitzaion eta erantzuna zioen zuzendaritza batzordean landuko den gaia izango zela. Zuzendaritza batzordean landu eta gero ekainean egingo den Batzar Orokorra joan den gaia izango dela eta Batzar Orokor hori urtean behin egiten den batzarra dela argitu du Alkateak. Gauzak diren bezala esan behar direla azpimarratu du Alkateak eta horretaz gain, Udalak bilatu ez duen egoera batean aurrean gaudela argitu nahi izan du.

Bestalde, EAJ/PNV edozein gai lantzeko erabiltzen duen kudeaketa, sonanbulu baten jokatzeko moduarekin konparatu du Alkateak. Hau da, aurpegia aldatu gabe, azaleko gauzak esaten dituztela, proposamen berritailerik aurkeztu gabe eta prozeduran bakarrik fijasen.

Orokorrean beraien jokatzeko era automatizatua dela dio, udalerrian dauden proiektuen nortasuna ahulduz. Aldiz, beraien politika zailagoa baina aldi berean aberatsagoa dela dio, bizirik dagoen herri bati erantzuteko behar den kudeaketa eskainiz. Onartu du beraiek egiten duten kudeaketak zailtasunak dituela eta egiten diren proposamenak berritzaileak izanik ondorioak dakartzala, hau da, prozedura juridiko-administratibo berriak sortzeko beharra eta denbora gehiago eskaini behar zaiola, baina aldarrikatzen du emaitzak hobek direla eta hori dela udal gobernua defenditzen duena.

Azken momentu arte lanean jardun direla dio eta gogorarazi du lana ez dela amaitu, 2026-27 ikasturtea gainean dagoela eta beraiek Haurreskolak Partzuergoarekin lanean jarraitzen dutela adierazi du.

Azpimarratu du serio egiten diren lanek aitortza bat merezi dutela eta herriak dituen proiektuek ere bai. Legealdi honetakoak ez diren proiektu asko daudela dio, urteak dihardutela udalerrian eta hauek defendatzea denoi dagokigula gogorarazi du, hauek emandako emaitzak onuragarriak direlako eta herriaren nahia hori delako.

Honen denaren berri edukitzeko herrian egon eta bizi behar dela dio Alkateak eta momentu erabakigarri hauetan herritarrekin egon behar dela azpimarratu du. Beraz, proiektu honen nortasuna onartzea funtsezkoa dela dio. Bestalde, proiektu hau herri mailan eta sisteman aitzindaria dela dio, izan ere 0-3 urteari eutsi dion ez-ohiko kudeaketa sistema oinarri izan delako eta ondoren Haurreskola



Partzuergoa, Oiartzungo herriak landutako kudeaketa sistema eredu bezala hartuta sortu zela aldarrikatu du.

Beraz bai, Oiartzungo Partzuergoa berritzailea izan dela eta udal gobernu honek etorkizunean horrelako proiektuak sortzen jarraitu nahi duela, lanari beldurrik eduki gabe, bide berriak urratzeko beldurrik gabe, beste administrazioekin borondatea badute behintzat, elkarlanean aritzeko prestutasuna edukita eta lekuan lekuko eta momentuko beharrei erantzunez, behar bezalako kudeaketa egiteko asmoa dutela azpimarratu du Alkateak.

Ondoren, Urmendi beti herri 0-3 bizirik herri plataformatik hitza hartzen dute ondorengoa adieraziz:

*“Haserre gaude, haserre gaude helduen interesak gailentzen diren mundu honetan, haurrak eta haurren beharrak ez direlako erdigunean jartzen, inoiz ez. Azken aste hauetan, karta guztiak mahi gainean jarri ditugu denok eta zoritxarrez Oiartzuar haurrak eta beraien beharrak zenbaiten kartetan ez dira inondik ageri.*

*Maitane, Rafael, Iñaki eta Janire kaltetuak garen helduon kezkek ahoan eta prentsan bolo bolo darabilkizuen ez eseri zarete gurekin? Noiz galdetu diguzue gure iritzia? Noiz izan da zuen interesa herriko haurren ongi izatea?*

*Izan zaitezte zintzoak herritarrokin, zuen benetako interesa ez da herriko hezkuntza proiektua, eta are gutxiago Oiartzuar herritarren bizi kalitatea hobetzea. Besteak beste, zuek eragindako egoera baten aurrean, erantzukizunez jokatzeko ez zarete gai. Ez duzue adorerik arpegia emateko, ez zarete gai izan gaur pleno honetara herritarrokin batera arpegia ematera etortzeko.*

*Haserre gaude, haserre gaude akatsak akats hiru hamarkada luzez Euskal Herrian eta Munduan zergatik ez esan, aitzindaria izan den Urmendi izeneko proiektu pedagogikoa, denbora gutxian pikutara bidaliko duzuelako. Zenbat kostatzen den herri proiektu bat elkarlanean sortzea eta zenbat denbora gutxian deusezta daitekeen.*

*Akatsak akats; berriz diogu, jakin badakigulako bideak harri txintxarrak izan dituela eta hobetzeko tartea egon badagoela. Baina horren guztiaren gainetik jartzen dugu 0-3 zikloa errespetatzeko, alegia Oiartzuar txikiaren garapenean funtsezkoa den bizi etapa garrantzitsuena mimatzeko egin den ahalegin eta esfortzua. Beste ezeren gainetik, praktika pedagogiko hori hainbeste urtez plantan jarri izanik merezi izan du. Eta hori kudeaketak kudeaketa, egunerokoan lanean aritu diren profesional talde iraunkor eta egonkor eta zoragarriak egin du. Doakie hemendik gure esker ona bide batez.*

*Plataforma honetan gehienak gurasoak gara, eta rol horretatik hitz egiten dugu batez ere. Baina gurasoak izateaz gain, Oiartzuarrek ere bagara, herritarrek, gure herria norbere bizi proiektua garatzeko herri onena izateko nahia dugu herritarrek.*

*Urmendik norabide horretan izugarritzko lana egin du, hiru mila bostehunetik gora Oiartzuar pasatu dira Urmenditik, gaur egungo biztanleriaren hamarretik hiru gutxienez. Azken aste eta hilabete hauetan are kontzienteago izan gara, Herriko haurren hezkuntza, herritik bertatik kudeatzeak dakartzan onurez, zoritxarrez zerbait galtzeko arriskua dugunean ematen diogu duen benetako balioa. Orain ari gara konturatzen beste inon existitzen ez den proiektu pedagogiko baten parte izan garela.*

*Azken aste hauetan ikusi eta entzun ditugunak gogoan, Urmendi proiektuan desagerpenak irribarre txiki hori eragiten dion horri galdera bat luzatu nahiko genioke. Benetan hainbeste gailentzen zaizu barruan duzun harrak, haurrentzako proiektu pedagogiko integral baten desagerpenaren gainetik, erantzuna baiezkoa bada, ufa.*

*Nolako jendarte ereduera irakitzeko ari garen gu helduok, esperantza kondentatu ginelako, gure ondorengoek ez dezatela esan, ezin esan dezatela, Oiertzuorrenzakako honena den hezkuntza proiektua mantentzeko gai izan ez ginenik.*

*Jar ditzagun haurrak erdigunean, jar dezagun beraiantzat hoberena dena helduen askotariko interes eta beharren gainetik. Pedagogo ospetsu askok dioten bezala, haurrak politiken erdigunean jartzen ditugunean lortuko dugu guztiontzako justuagoa eta bizigarriagoa den jendarte desiragarria."*

Alkateak hitza hartzen du eta bozketara pasa aurretik, pare bat jakinarazpen egin nahi dituela adierazi du.

Lehenik, ez-ohiko plenoa ezinbestekoa izan dela Haurreskola Partzuergoan integratzeko eskaera hau plenotik pasa beharreko izapide bat delako eta bigarrenik, izapide honek gehiengo osoa eskatzen duelako aurrera jarraitu ahal izateko.

Azalpenak amaitu ondoren eta bozketa hasi aurretik, Oihana Irastorza Gonzalez eta Ibintza Irigorri Iriartek, gaiarekin duten interes zuzena dela eta aretoa uzten dute.

Garazi Urdampilleta Astibia zinegotziak hitza hartzen du eta ondorengo adierazten du:

*"Nik Garazi Urdampilleta Astibia, zinegotzi bezala dagokidan erantzukizunetik eta ardura instituzionaletik baiezko botua emango dut, ez ordea konbentzimenduz, hezkuntza legeak 0-3 etapa jasotzen duen arren, oso hezkuntza proiektu gutxietan aplikatzen delako eta uste dutelako 0-3 etapa galtzea akats bat dela."*

Olaia Lasa Olaziregi zinegotziak hitza hartzen du eta ondorengo adierazten du:

*"Nik Olaia Lasa Olaziregik, zinegotzi bezala dagokidan erantzukizunetik eta ardura instituzionaletik baiezko botua emango dut, ez ordea konbentzimenduz, izan ere 0-3 etapa etorkizuneko ongi izatearen inbertsioa delako hezkuntzaz haratago"*

Edorta Fernandez Etxepeteleku zinegotziak hitza hartzen du eta ondorengo adierazten du:

*"Nik Edorta Fernandez Etxepetelekuk, zinegotzi bezala dagokidan erantzukizunetik eta ardura instituzionaletik baiezko botua emango dut, ez ordea konbentzimenduz, badakidalako honek familiengan zer eragin duen eta langileengan ze kezka sortzen duen."*

Nora Velez del Burgo Zalakain zinegotziak hitza hartzen du eta ondorengo adierazten du:

*"Nik Nora Velez del Burgo Zalakainek, zinegotzi bezala dagokidan erantzukizunetik eta ardura instituzionaletik baiezko botua emango dut, ez ordea konbentzimenduz, herri proiektua gauzatu ahal izateko Hezkuntza Sailak publikotasun eredu anitzak barne bildu beharko lituzkeela uste dudalako."*

Jon Albisu Mendiburu zinegotziak hitza hartzen du eta ondorengo adierazten du:

*"Nik Jon Albisu Mendiburuk, zinegotzi bezala dagokidan erantzukizunetik eta ardura instituzionaletik baiezko botua emango dut, ez ordea konbentzimenduz, proiektu buru jabe bat kolokan dagoelako."*

Jexux Olaziregi Bagües zinegotziak hitza hartzen du eta ondorengo adierazten du:

*"Nik Jexux Olaziregi Bagüesek, zinegotzi bezala dagokidan erantzukizunetik eta ardura instituzionaletik baiezko botua emango dut, ez ordea konbentzimenduz, hezkuntza proiektu aitzindari bat den bitartean Hezkuntza Sailak sustatu behar duen proiektu bat delako uste dudalako."*

Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi zinegotziak hitza hartzen du eta ondorengo adierazten du:

*“Nik Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendik, zinegotzi bezala dagokidan erantzukizunetik eta ardura instituzionaletik baiezko botua emango dut, ez ordea konbentzimenduz, herriko kurrikulunak eta Oiartzunek gaur egun duen presentzia galtzeko arriskua ikusten dudalako.”*

Ekain Susperregi Iburguren zinegotziak hitza hartzen du eta ondorengo adierazten du:

*“Nik Ekain Susperregi Iburgurenek, zinegotzi bezala dagokidan erantzukizunetik eta ardura instituzionaletik baiezko botua emango dut, ez ordea konbentzimenduz, 0-3 etaparako gure herriko haurrentzako honena den hezkuntza proiektua jada badugulako.”*

Agustin Lekuona Irastorza zinegotziak hitza hartzen du eta ondorengo adierazten du:

*“Nik Agustin Lekuona Irastorzak, zinegotzi bezala dagokidan erantzukizunetik eta ardura instituzionaletik baiezko botua emango dut, ez ordea konbentzimenduz komunitate bat indartzeko aukera pasatzen utzi nahi delako.”*

Esandako guztia kontuan hartuta, udalbatzak, aho batez, onartu du, Oiartzungo Udala “haurreskolak” partzuergoan integratzeko eskaera.

**Botazioa:**

	<b>Bozka kopurua</b>	<b>Udal taldea/zinegotzia</b>
<b>Alde</b>	12	10 EH Bildu, 2 EAJ/PNV
<b>Aurka</b>		
<b>Abstentzioa</b>		

Lehendakariak amaitutzat eman du ez-ohiko batzarra, 18:35ak direnean. Idazkariak ez-ohiko batzarrari dagokion agiri hau idatzi eta alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorriz Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, idazkaria naizen honek, ematen dut.

Alkatea



OIARTZUNGO  
UDALA

Sin.: Joana Mendiboure

Idazkaria



OIARTZUNGO  
UDALA

Sin.: Maria Victoria Joaristi Olariaga



OIARTZUNGO  
UDALA